

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak herritarrekin komunikatzeko bide berri bat ireki du Twitter gizarte-sarean

*@navarragob helbidean, asteroko saioetan hartutako erabakien berri emango da, besteak beste*

Lunes, 18 de julio de 2011

Nafarroako Gobernuak Internet bidez komunikatzeko beste bide bat ireki du gaur, herritarrei eguneroko gaien eta Foru Gobernuaren, departamentuen eta zerbitzuen jardunaren inguruan jakinarazteko. Twitterreko kontu bat da, eta, han, herritarrek egokitzat jotzen dituzten iruzkinak egiteko aukera ere izango dute.

Nafarroako Gobernuaren Twitterreko webgunea <https://twitter.com/#!/navarragob> da, eta kontu ofiziala @navarragob.

Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia kontseilari eledunak ireki du komunikatzeko bide berria, gaur, Foru Gobernuak hartu dituen erabakiak iragartzeko prentsaurrekoan. Neurri hori agintarien eta herritarren arteko distantzia laburtzeko ikur gisa aurkeztu du.

Komunikaziorako bidea ireki eta ordubetera, 37 herritar gizarte-sareko Nafarroako Gobernuaren kontuaren jarraitzaile egin dira.